


# Arte Batxilergoa (Musikala)



Elgoibar BHH



2015-16 ikasturtetik Arte Batxilergoa egiteko aukera dago Institutuan, ikasketa-plan honekin:

	BAT-1	BAT-2
<b>Derrigorrezko tronkala</b>	Artearen Oinarriak-I	Artearen Oinarriak-II
<b>Tronkala aukerakoak</b>	Ikus-Entzunezko Kultura I Mundu Garaikidearen Historia Literatura Unibertsala	Ikus-Entzunezko Kultura II Arte eszeniko eta dramatikoak
<b>Espezifikazioak</b>	Musika Azterketa I Musika-Hizkuntza eta Praktika *Giza Matematika	Musika Azterketa II <b>Musika eta Dantzaren Historia</b> *Giza Matematika

Ikasgai hauek bidea ematen dute etorkizunean Irakaskuntza Artistikoak eta zenbait Unibertsitate Gradu ikasteko; baita **Humanitateak eta Giza Zientzien Batxilergoa** eginik aukeratu ahal diren Unibertsitate Gradu gehienak ere:

- Goi mailako Heziketa Zikloak:** Arte Dramatikoa, Animazioa  
Soziokulturala,...
- Musika, Dantza eta Interpretazioaren Goi Mailako ikasketak.**
- Gradu Unibertsitarioak:** orokorrean **Arte** eta **Humanistiko** alorrekoak, zientzia sozialak eta juridikoak; eta espezifikoki hurrengoetan: Musika,

Historia eta Musikaren Zientzia, Arte eszenikoak, Dantza, Dantzaren Zientzia, Musikaren Konposizioa, Lehen Hezkuntza (Musika espezialitatean)...

BATXILERGO aukera honen ikasgaiak metodologia eta helburu zehatzak dituzte. Eduki propioak ahaztu gabe, adierazmena, memorizazioa, ikusentzunezko zaletasuna, sormena, talde lana eta iritzi kritikoa lantzen dira gehien bat. Ikasleen profila, beraz, eskakizun hauei erantzun egokiak emateko gai izan behar da. Beraz, ez da Antzerki, Musika edo Dantza akademia bat; beste mota bateko **BATXILERGOA** baizik.



